

KATALINA DE ERAUSO PASTORALA

BAIONAN 2016eko EKAINAREN 5ean

LE 5 JUIN 2016 à BAYONNE

DONOSTIN 2016eko IRAILAREN 4ean

Le 4 SEPTEMBRE 2016 à St SEBASTIEN

www.katalinapastorala.eus

KATALINA DE ERAUSO PASTORALA

2008an Maite Berrogain Ithurbidek idatzia, 2013an Donostia hiria Europako Kultur hiriburu izendatu berrian, solasak hasi ziren Donostiako arduradunekin eta idazlearekin, 2016eko pastoralaren obratzeko ideiarekin. Horren ondorioz, elkartearen eta pastoralaren muntatzeko lanak hasi ziren, 2016an Baionan eta Donostian hunen emaiteko helburuarekin.

EUSKALDUN FAMATU EZEZAGUNA EUSKAL HERRIAN

Katalina de Erauso 17garren mendeko Donostiko emaztea zen. Haurrean komentuan sartua, handik ihes egin zuen 15 urtetan. Gizonez mozarroturik abentura bizi bat ereman zuen, ezpata lagun bere bidea urratuz Europan lehenik eta gero 24 urtez Hego Ameriketara, Españolek zeramaten konkistaren baitan Alferez edo Entseñari gradoa lortuz. Bere emaztetasuna deskubritua izan zenean, « Monja Alferez » (Serora Entseñari) izen goitia eman zioten eta famatua bilakatu zen Europa eta Latino Amerika guzian. Espainiako erregeak eta Urbain 8 aita sainduak gizonez jauntzirik bere biziaren bukatzeko baimena eman zioten, berak nahi zuen bezala.

Fama handia ukan zuen Katalinak bere garaian, eta geroztik ere hainbat antzerki eta pelikulen gaia izan da mundu hispanikoan. Bere libertatearen lortzeko egin zituen uratsen gatik ere, bilakatu da emaztek beren sozial eta sexual askatasunaren alde deramaten borrokaren ikurretarik bat. « Euskaldunen ganik ez zelakotz ezaguna ez eta ezagutua » lotu da Maite gure historiako personai berezi horren pastoralaren idazteari.

PASTORALA FEMININOA ETA MUGAZ GAINEKOA

Pastoral gutik dute emazte bat süjet, pastoral idazle emazte guti den bezala funtsian. Ohargarria ere da kasu huntan bi errejentsa ditugula (Pantxika Urruty eta Maitena Lapeyre). Hots lehen aldikotz pastoralaren istorian, hunen bizkar hezur guzia emaztek osatzen dute, emanez pastoral huni, **femininoa** delako izaitea : Emazte bat, autore eta ikusgarri zuzendari emaztek taularatuko dute lehentze Baionan eta Donostian 2016an.

Beste primizia bat ere dauka pastoral hunek, mugaz gainekoa izanen da. Bi hiri eta zabalago ikusiz, Lapurdi eta Gipuzkoa elkartuko ditu. Bi hirietan emaitiaz gain, Sahatsa, Azkoitiako dantza taldeak parte hartuko du, bi probintzien arteko loturaren lekuko eta Katalinaren itzalaren neurriko pastoral izan dadin.

EUSKAL KULTURA HERRIKOIAREN ILDOTIK

Aste huntan hasiko dituzte bere lehen errepikak 80 bat aktür, dantzari eta musikariek. Azken bi urte hauetan 40 bat lagun ari izan dira sail praktikoan elkartearen, intendentziaren prestatzen eta sail artistikoan berriz, kantuen musiken eta dantzen asmatzen eta biltzen.

Emanen den pastoral, orai ezagutzen den Xiberotar pastoralaren formakoa daie eta amatasun bat bilatzekotan, Parisen eman ziren bi pastoralen sail berekoa dela eran ditaike. Orduan zen euskaldunen hiriburuak zituen han ziren xiberotarrak pastoralaren bidean ezarri. Orai, Baiona den hiriburuak ber gisan, pastoralzaleak ditu pastoral horren inguruan biltzerat ekarri. Hain zuzen, partaideak adin guzietakoak dira, sortzez, lanaren edo ikasketen gatik Baionan eta inguruan errotoak, asko xiberotar jatorrikoak. Denak ere hiri huntan eta inguruan diren euskal kulturaren eta euskararen praktika herrikoian sartuak, urteetan hortan lanean ari

diren elkarteen baitan. Pastoralaren berez euskal kultura herrikoia-aren lore ederrenetarik bat da eta hunen eremailek, sail horren baitan kokatzen dute beren desmarta, memento oroigarri bat bat izan dadin BABeko jenden memoriaan.

PASTORALA : IKUSGARRIA BAINAN PRESTAKUNTZA ERE

Pastoralaren batek herri osoak emaiten ditu mogimenduan, bilduz mota guzietako dohainak eskuzkoak eta buruzkoak, haiek guziak edertuz ikusgarri mementoan. Ikusgarria, momenturik azkarrena bada ere, harek du bukatzen sei hilabeteko giza abentura aberatsa. Ez badira ere Baiona eta Donostia herri bati konpara, ideia horrekin, sei hilabete hortako prestakuntza egin ahala jender bizi arazterat entseaturiko gira.

Lehenik antolatuz Katalina de Erauso eta pastoralaren ezagutzeko ekitaldiak, konferentzia, erakusketa, errepika idekiak eta abar.... Bestalde hitzarmen batzu egin eta eginen dira Baionako veste erakunde eta lekarteekin. Adibidez, jauntzien josteko dabilen taldeak lan eginen du San Izpirituko Le Fil inserzio elkartearekin. Hortaz gain, zabalduko dugu pastoralaren oinarri herrikoia nahi duenari, pastoralaren izpiritua delako eta ere hala beharrez, horrelako ekitaldiaren finantziaturiko diru ainitz behar baita

Instituzio eta mundu ekonomikoari urbiltzen ari gira bainan horrez gain jenden borondateari ere dei egiten dugu. Bere sustengua ekarri nahi duena pastoralaren partaide bilaturuko da eta elkarteak horren bizituriko molde berezi bat eskainiko dio. Adibidez, ikusgarriko kantuetaz gain pastoralak badu bere himnoa, ikusgarrien egunean emana izanen dena. Partaide guziak gomitat daizke horren kantaturat pastoreko akturerekin batean, eta sei hilabetez gisa bereko beste hitzordurik ere dukete.

Hots, guk ere pastoralaz baliatu nahi dugu Baiona lehenik eta Donostia hein batean ondorit, mogimenduan emaiteriko, molde kolektiboan, hau baita hastapenetik hunen abiatzailerik izan duten izpiritua. **Biba Pastoral ! Biba Katalina !**

PASTORALE KATALINA DE ERAUSO

Ecrite en 2008 par Maite Berrogain Ithurbide, c'est en 2013 lorsque la Ville de Saint-Sébastien fut choisie pour être la capitale européenne de la culture que certains responsables culturels de St Sébastien demandèrent à Maite s'il était possible de la représenter en 2016. Une équipe fut tout de suite réunie à Bayonne et la préparation fut lancée avec comme objectif sa représentation dans les deux villes en 2016.

KATALINA, BASQUE REPUTEE ... SAUF EN PAYS BASQUE

Katalina de Erauso fut une femme du 17^{ème} siècle native de St Sébastien. Placée au couvent dès son enfance, elle fuit ce lieu à 15 ans et travestie en homme, arracha sa liberté à la pointe de son épée, en Europe, mais très vite en Amérique Latine, notamment au sein de l'armée de la Conquista en recevant le grade de lieutenant. Sa condition de femme étant découverte, elle créa le buzz en Europe et en Amérique Latine sous le pseudonyme de Monja Alferéz – Soeur Lieutenant – à tel point que le roi d'Espagne Felipe 4 et le pape Urbain 8 lui concédèrent la possibilité de vivre habillée en homme selon son souhait.

Elle eut une aura très importante alors, mais aussi par la suite dans le monde hispanique puisque beaucoup de livres, de films et de pièces de théâtre lui ont et lui sont consacrées. Elle est devenue également une des icônes des femmes qui luttent pour leur émancipation autant sociale que sexuelle. Maite a écrit cette pastorale « pour que les basques la connaissent et la reconnaissent » comme un personnage important de leur histoire.

PASTORALE FEMININE ET TRANSFRONTALIERE

Peu de pastorale ont comme sujet une femme. Encore moins ont été écrites par une femme. Il est remarquable également que les errejets de cette pastorale sont également des femmes : Pantxika Urruty et Maitena Lapeyre. Bref la pastorale Katalina de Erauso a une colonne vertébrale féminine : une femme, qu'un auteur et des errejet femmes, mettront en scène à Bayonne et à St Sébastien en 2016, une première dans l'histoire de la pastorale, méritant ainsi le qualificatif de pastorale féminine.

Autre première, ce sera une pastorale transfrontalière. Au delà du fait qu'elle est produite pour les deux capitales du pays Basque Nord et du Guipuscoa, la scène elle-même sera le témoin de cette réalité, puisque le groupe de danse Sahatsa d'Azkoitia participera à la pastorale.

DANS LA DROITE LIGNE DE LA CULTURE POPULAIRE BASQUE

Cette semaine 80 acteurs, musiciens et danseurs se réuniront pour leur première répétition à la suite de deux années de travail de préparation technique et artistique menée par une quarantaine de personnes au sein de l'association Katalina de Erauso.

La pastorale sera de la même forme que la pastorale souletine actuelle mais s'il faut chercher une filiation, il faut la rattacher aux deux pastorales que les souletins de Paris donnèrent dans les années 70. La pastorale réunit les basques dans ce qui était alors leur capitale, Katalina de Erauso réunit de même les adeptes de la pastorale dans leur capitale d'aujourd'hui, à Bayonne. Les participants à cette pastorale sont de tout âge, vivant à Bayonne par leur naissance, par leur travail, leurs études, la plupart d'origine souletine. La plupart engagés également dans de nombreuses associations qui développent la langue et la culture basque

populaire. La pastorale est un des fleurons de la culture basque populaire par essence et Katalina de Erauso s'inscrit entièrement dans la dynamique de ces associations présentes à Bayonne et sur le BAB depuis des années, en voulant créer un moment inoubliable dans la mémoire des habitants du BAB.

LA PASTORALE : PLUS QU'UNE REPRESENTATION

Une pastorale mobilise tout un village, ainsi que tous ses talents, manuels ou intellectuels, en les sublimant le jour de la représentation. Ce jour-là, même s'il est très fort, marque également la fin d'une aventure enrichissante de six mois. On ne peut comparer ni Bayonne, ni St Sébastien à des villages. Pourtant c'est avec le même esprit que nous voulons faire vivre ces six mois de répétitions au plus grand nombre possible, au-delà des seuls acteurs de la pastorale.

C'est pour cela que des conférences, expositions, répétitions publiques ... seront organisées. De même, des collaborations auront lieu avec d'autres associations (atelier de couture avec l'association de réinsertion Le Fil de St Esprit) pour certaines tâches inhérentes à ce grand spectacle. Enfin nous avons l'intention d'étendre la base populaire de cet événement en y associant tous ceux qui le désirent et ainsi en subvenant aux besoins de financement importants de ce projet même si nous faisons appel aux institutions et au partenariat privé.

C'est pour cela que nous lançons une campagne de dons auprès du grand public, don qui garantira à chacun des donateurs sa participation à cette œuvre, durant la préparation de la pastorale et aussi le jour de ses représentations. Par exemple, cette pastorale aura son hymne, différent des chants du spectacle lui-même. Ceux qui soutiendront financièrement la pastorale le chanteront avec les acteurs le jour de la représentation.

Nous voulons avec la pastorale KATALINA DE ERAUSO, mettre en mouvement la Ville de Bayonne et dans une certaine mesure celle de Saint-Sébastien, avec l'esprit collectif qui a animé depuis le début ceux qui l'ont lancée. **Biba Pastoral ! Biba Katalina !**

KARGUAK – CHARGES

Maite BERROGAIN-ITHURBIDE : Idazlea – Auteur

Pantxika URRUTY, Maitena LAPEYRE : Errejentak – Metteurs en scène

Sophie LARRANDABURU, Maite IDIRIN : Kantu zuzendariak – chef de chœur

Juhañe ETCHEBEST : Koregrafoa – Chorégraphe

Juan Luis LIZABE SUDUPE : Sahatsa dantza taldeko zuzendaria

Jean LAPHITZ: Musika taldearen burua – Chef d'orchestre

Pierre ROUSSEU - Latxikana -, Sophie LARRANDABURU, Guillaume IRIGOYEN, Jean LAPHITZ, SALLABERRY : Kantu eta doinu idazleak – Auteurs des chants et des mélodies

Anne-Marie SUBIAS, Kattin MARTIN, Jeanine BERROGAIN, Janny LARRASQUET, Mariejo PEHAU LAXAGUE, Marie TILLOUS, Libe GOÑI, Danielle BLAS, Annie TRIGALOUX, Jasone SALABERRIA, Jeanine FOIX : Dendariak – Couturière

Jean Marie ETCHART : Presidenta – Président

www.katalinapastorala.eus

Komunikazioa : Guillaume IRIGOYEN - 06 12 85 23 37